

AITA AGIRRETXE ETA ZAMALBIDE

LOTURA BATEN AZTARNEN HARITIK

Esteban J. Agirre

Joan den uztailaren 14an hil zen Bermeon Aita Agirretxe, frantziskotar sermolari historiko ezaguna. Adinean aurrera doazenek edota Zamalbiden ezagutu zutenek ez dute haren aurkezpenik beharko. Kasu batean edo bestean ez daudenek, berriz, galdezka ariko dira zergatik sartu ote den haren aipamen hau gure urtekarian.

Batzuentzat eta besteentzat, halere, baliagarriak izango dira, Aita Agirretxe nor zen jakiteko, Paulo Agirrebaltzategik Euskaltzaindiaren bilkuran (2006/01/27) Gipuzkoako Foru Aldundiaren jauregian irakurritako hitzak: pertsona eta fededun gisa egindako ibilbidearen lekuko eta euskaren eragile gisa gure hizkuntzari egindako ekarpenaren adierazle¹.

Errezildarra jaiotzez (1920/11/15), frantziskotarra bizibidez, hainbat lekutan bizitzea egokitu zitzaion (Arantzazu, Zarautz, Segovia, Kuba...) taldeko lan eta ardurak medio. Aita Agirretxek badu, esan bezala, gure herriarekiko lotura eta «Oarso» aldizkari honetara ekartzea eragin duen arrazoi adierazgarri bat: Eujenio Errenterian bizi izan da urteetan, Zamalbiden, auzo hartako ermitatxoak duen etxebizitzan. 1977an jarri zen bizitzen Zamalbideko ermitan beste hiru lagun fraiderekin eta bertan iraun du frantziskotar arduradunek 1991n Zarauzko komentura joateko agindua eman zioten arte.

Zergatik Zamalbiden? Zergatik fraide bat komentu itxurarik gabeko etxebizitza batean? Hona, errenteriarrentzat interesgarria izan litekeen datu bat. Zamalbidetik ematen ziolako aukera egokia Vatikanoko II. Kontzilioak Elizari ekarri zizkion aire eta molde berriak bere gustuko erara gauzatzeko: sustraiei eutsiz, jendearen artean txertatu, gizarte bizi eta kezkatu baten erdian, garaiko lan, politika, kultur... ekaitzek astindurik bizi zen herri batean, taxuz bideratu gabeko etorkin olatu batek herri itxura aldatu, baina bere euskal izaeraren garra -Zamalbide-Bentako auzo hartan bereziki- bizirik zuen gure herrian

Horixe izan zen, esango nuke nik, Eujenio-Zamalbide binomio horren inguruan orriotarako eskatu zaidanari lotuz, gure lagun honen lehen ekarpena Zamalbideri. Eujeniorekin auzo hartara joan ginen frantziskotarrok abal bat jaso genuen haren pertsonaren bidez hainbat urtez saiatu ginen kultur, elkarreratzte, heziketa eta hainbat eratako zerbitzuak auzoan abiarazteko. Eujenio gabe, gazteagoon jardunak berez piztu zezaketena baino askoz errezelo eta mesfidantza handiagoa sortuko zuen askoren begietan.

Abal horri esker, sortu eta hedatu zen auzoan nekazarien mugida sindikal sendoa. Edota egin ahal izan zen baserri guztietako herri-bideen berritze erabatekoa. Horren isla izan daiteke, alderdi politiko batek eskaini aukera baliatuz, auzotarrek ordezkari bat izan zutela Errenteriako Udalean, auzotarrek beraiek zerrenda hura zela medio ordezkatzeko izendatutakoa.

Eujenioren abal horri esker gizarte mailan egindakoa ez zen, halere, gunen formal horietara mugatu. Hor aipatuko nituzke, adibidez, auzoaren lan- eta jai-bilgune izan den eliza azpiko



¹ Irakurri nahi izanez gero, honako web helbidean aurkitzen da: http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1139324994

lokala; edota urte haietatik egiten den auzoko zaharren omenaldi eguna; edota Benta inguruan altxatutako pilota-, proba-, sozietate-lekua. Izen propio asko dago lorpen horien guztien atzean eta Pello Ezeizarena datorkit guztien gainetik. Baina berriro diot: guzti horri sinesgarritasuna eta une latzetan euspina ematen zion itzala Eujeniorena izan zen.

Zamalbidetik, bere txikian, Errenteriako beste auzoen pareko ekimen, zerbitzu edota eskaintzak zituen: haur eta gaztetxoentzako udalekuak, musika edo dantza edo zenbait tresna ikasteko klaseak, gaztetxoentzako aisialdi kluba, auzo elkarteak, Gabon eta Urtezaharretako kopia-taldea, San Markoko erromeria, etab. Hitz baten jiran islatzen da modu adierazgarrian auzo giro hura: ordu-ra arte "malobra" izenez ezaguna zen auzo-lana eta urte haietan bizi izan zuen gorakada eta izen ona. Izen horixe jartzeraino, hain zuzen, auzotar guztien artean jasotako Bentako eraikinari.


Zamalbidetako taldean zuen lidergoa baino harago, ordea, Eujeniok ekarpen pertsonal sakona utzi zuen Zamalbidera etortzean bere ardurapean hartu zituen lanetan. Badakit, adibidez, auzotarrek eta handik kanpokoek ere oso gustukoak zituztela hark igandez igandez gidatzen zuen 10etako meza eta han sortzen zuen giroa; haren hitza Elizan ospatzen zenari eta gizarteak bizi zuenari gerri-gerritik lotzen zitzaielako, batetik; eta mezan haien ingurumarian, meza-ondoan, eliz atarian sortzen zen auzo-giroagatik, bestetik.

Eujeniok hizlari onaren fama ondo merezia du Euskal Herri osoan. Miresgarriak ziren haren sermoien "gidoiak", are miresgarriagoak eliz garai zaharrak ezagutu eta molde berrietara egokitzen jakin zuela kontuan hartzen badugu. Askorentzat etorri handiko gizona izango zen; alde horretatik, bertsolarien artean halakotzat jotzen ditugun puntakoenen pareko. Gutxiak jakingo dute, ordea, zenbat izerdi ematen zioten igandetako 10 minutuko saio haiek. Sarritan entzun izan nion gero eta gehiago kostatzen zitzaiola zerbait egokia prestatzea. Zuzeneko lekuko gisa, inprobisazioa ez beste edozer zutela aitor dezaket egiaz.

Ostegunean hasten zen prestatzen. Igandeko Biblia pasarteak hartu eta, eguraldia lagun bazuen behintzat, aterako zen mendira eta han egingo zuen astiro goiz osoko lehen hausnarketa luzea. Ostiral-larunbatak harilduz zihoan gaiaren bilbea osatzeko eta ñabardurak emateko egunak izaten zituen, ohiko betebeharrei erantzuten zien bitartean.

Hain zuzen horiexek zirela esango nuke nik auzoari egin zion beste ekarpen apala bezain garrantzitsua. Eta horien artean, hau: auzoko zahar eta gaixoak. Auzotarrek biziki estimatzen zuten bezala haren bisitaldia, Eujeniok zorrotasun osoz eramaten zuen bisiten agenda: nor nola zegoen, non ingesatu zuten, noiz joan zitzaion ikustera, noiz komeni itzultzea...

Halere, Eujeniok hainbat ekarpen utzi dio Zamalbide eta Errenteriarri ez ezik, baita gure hizkuntzari eta euskal Elizari ere. Hor daude haren eskuizkribuak, norbaitek arakatu eta hizpide dugun Eujenioren pertsona, ideologi edota hizkuntz ardatzak agerian jartzeko zain. Dena den, pasadizo esanguratsu gisa, hona Eujenioren beste bi ekarpen; ez berak utzitako erabakigarrienak, baina bai haren izaeraren adierazgarriak, gure toki-mugak gainditu eta gaurdaino bizirik dirautenak, eta indartsu, gainera.



Emausko Traperoak. Donostian kokatutako elkarte honek Errenterian ditu bere sustraiak: gure herrian eman zituen lehen urratsak eta Agustinetan izan zuen lehen etxe eta kokagunea. Eujenioen eta gizarte egoera kaskarrak kezkatutako Antselmo Arrieta, Iztietako apaizaren ekimenari zor dio Donostiako taldeak bere sorrera gure artean.

70eko hamarkadan kokatu beharra daukagu ulertzeko. Franco hil eta "trantsizio demokratikoa"ren bidez jarri nahi izan zen diktadura ostean egin beharreko normalizazio politikoa. Gure gizartean, bestalde, 73ko lehen mundu mailako petrolio krisialdiaren ondoren, euskal ekonomiaren ikurra zen industriak erabateko krisialdia bizi zuen eta, sendabidea, hamarkada haren azkenaldian abian jarri zen "industri birmoldaketa" –egunkariak gaztelaniaz "reconversión industrial" deiturikoa– izan zen.

Baillara osoa hustu zen lantegiz eta behin betirako itxi edo beste norabait joan ziren. Lehen milaka langile erakarri zituen gure herria industri basamortu bihurtu zen eta langabetuen tasak kopuru eskandalagarrietaraino iritsi ziren. Begiak adi eta barnea irekirik zituzten askok argi sumatzen zuten, makroekonomiako zenbakien ginetik, izen eta aurpegi zehatzeko gizon eta emakume asko bizitzen ari zena... kale gorrian.

Antselmo izan zen horietako bat eta Eujenioengana jo zuen aholku eske. Honek Frantzian izandako egonaldietan ezagutu zituen zuzenetik L'Abbé Pierre eta hark sortutako Emausko Traperoen elkarte eta biek hala biek ekin zioten halako bat eratzeari gure bailaran. 1979ko udan Euskal Herri osoko gazte andana –gehienak kristau mugimenduetan parte hartzen zutenak– ibili zen gure herrian botatzeko izan zitezkeen soberakinak biltzen eta birziklatzen. Sortutako fondoei esker abiatu zen, esan bezala, Agustinetan gaur, ezer zaborretara bota aurretik, burura datorkigun Emausko Traperoen izen eta zerbitzua.

San Markoko guruzbidea. Memoriak ez badit okerrik egiten, 25. aldiaren jiran ibiliko da gure herriko Aste Santuetako ekimen hau. Gero eta jende gehiago omen doa, gainera, lagunek esan didatenez. Ez dakit gaur bertaratzen direnek jakingo duten, baina hori ere Eujenioen ekimenari zor zaion jarduera dugu.

Fede gartsuko gizona eta kristau Elizako ministroa, Eujenio ez zen inoiz izan betebeharrak kunplitzera mugatzen zen eliz "funtzionarioa" (hitz honi eman ohi diogun adierarik txarrean). Zamalbideko ermitan harekin bizitzen ziren funtzioak ere ez ziren kunplitzera mugatzen zirenetakoak. Hainbat aldiz naturaltasun osoz auzotarrek txaloka erreakzionatu izan zuten, ez aurrean zuten fraidearen zer edo zeri, fraide harekin ospatzen ari zirenari baizik.

Izan ere hazi egiten baitzen Eujenio, barnez eta kanpo, herria aurrez aurre zuenean. Harekin bat egiten zuen, harekin batera bizi, berak ere. Herria gidatzen zekiena zen dudarik gabe: demagogia bete-betea (hitz honen adierarik onenean, kasu honetan), hots, «herri gidaria».

Eta hala gertatzen zitzaion Aste Santuko ospakizunetan ere: ez zen mugatuko elizkizun soilletara eta, udaberri aro egokia lagun, auzotarrak gonbidatzen hasi zen Ostiral Santuko otowitzaldi hori San Markora joanez egitera. Gogoan dut lehen urte haietan elkartzen ginen auzotarren taldea; nola hasi ginen kaletar jendea ere gure artean ikusten; nola, jende multzoa haziz zihoala-eta, megafoniaz baliatzen hasi behar izan genuen.

Gaur jendetza elkartzen da. Egunoi buruzko egitarauetan ikusi dut iragarria. Bailarako hedabideetan ematen da haren berri. Herri baten kultur ondarea aberastera etorri den egutegiko ohitura xaloa bezain erakargarria, azken batean.

* * *

Ezagutu genuenok ahaztuko ez badugu ere, badatoz Eujenioen berri izango ez duten belaunaldi gazteak. Azkena eman ditudan eta gaur gure gizartearenak diren ekimen eta jarduerak direla medio Eujenioen zuzeneko aztarna ikusten lagundu badiot irakurleari, betetzat ematen dut nire xedea.

Zorionak, herriko jaiak direla-eta, urtetik urtera herriko gaien muinarekin bat egiteko parada eskaintzen duten urtekari honen arduradunei, oraingoan, besteak beste, Eujenioen ekarpena gure herriarekiko jasotzean erakutsi duten arretagatik. ■